





## 20 urteko ibilbidearen errepassoa: papereko ediziotik aro digitalera

Hamarkada bitan komunikazioaren munduak aldaketa izugarriak izan ditu. ANBOTO komunikazio taldea aro berrira egokitu da edizio digitala eta sare sozialetako lana indartuta

**DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO**  
ANBOTOK 20 urte bete ditu asteon, azaroaren 9an. Urteurrenaren harira, komunikazio taldeak ale berezia prestatu du. 2001etik martxan den hedabideak hamarkada bi betetzeak gogoeta egiteko eta aurrera begirako erronkak planteatzeko aukera ematen du.

ANBOTOren sorrera gogoratzeko, Jone Guenetxea zuzendariak Eraz aldizkariak aurretik egindako lana azpimarratu du: "Durangaldean bazegoen euskarazko tokiko informazioa kontsumitzeko tradizioa, eta hori Erazi eskerrak izan zen". Deba-goienako komunikabideen ereduari jarraituta, ANBOTOgaz irakurle gehiagorengana heldu gura zuten, doako hedabidea sortuta. Aldizkari formatutik egunkari papererako jauzia eman zuten. "Saso hartan, euskara elkarte

asko zegoen Durangaldean, eta talde horiek izan ziren proiektuaren bultzatzaileak. Euskara eta feminismoa erdigunean ipintzea hasieratik izan dugu argi", dio Guenetxeak.

**J. Guenetxea: Durangaldean bazegoen euskarazko tokiko informazioa kontsumitzeko tradizioa, eta hori Erazi eskerrak izan zen**

Hamarkada bitan, hedabideen jarduna goitik behera aldatu da. "Gu paperetik gatoz eta webgunea martxan ipini genuenean, hedabide bien bidea uztartzea kost

egin zitzaigun. Harrezkero, batez ere azken hamarkadan, ikus-entzunezkoen eta sare sozialen aro digitalak dena aldatu du.

### Sare sozialen sasoia

Aro digitalak hedabideen ekoizpenean eta kontsumoan eragin du azken urteotan. Informazioa mugikorretik eta sare sozialen bitartez heltzeak kontsumo ohiturak aldatu ditu. "Irakurleek zein informazio jaso gura dute webgunean? Eta paperean? Argi dugu webgunea ezin dela papereko albisteen biltegi huts bat izan. Horregaitik, gure komunitateko hainbat pertsonaren laguntzagaz *focus group* bat egin genuen. Konturatu ginen papera elkarrikeria eta albiste sakonagoak irakurtzeko izan zitekeela, eta webgunea, ostera, momentuko aktualitaterako", adierazi du

Guenetxeak. Horrela, Durangaldeko aktualitatea urteko 365 egunetan lantzeko apustua egin zuen ANBOTOK. "Durangaldean erreferente izateko, webgunean momentuko berriak gertatzen ziren unean landu behar genituela erabaki genuen. Eta, horretarako, uneoro erredakzioa martxan izan behar genuela", gaineratu du. Webguneako audientzien estatistikek erakutsi dute erabaki egokia izan zela.

### Pandemiako datuak

0 kilometroari buruzko kontzeptua sarritan entzuten da elikaduraren edo artisautzaren arloan. Baina informazioa jasotzerakoan ere, bertatik bertara lantzen den tokiko informazioa 0 kilometrokoa da. Bertakoek bertako ikuspuntuagaz lantzen dituzten gaiak dira.

**M. Zuazubiskar: Lan handia egin dugu gure komunitateak kalitatezko informazioa jaso zezan konfinamenduan**

Pandemia sasoiaren, euskarazko hedabideek, baita ANBOTOK ere, bikoiztu egin dituzte webguneetako audientzien datuak. "Euskarazko tokiko hedabideok lan han-

dia egin dugu gure komunitateak kalitatezko informazioa jaso zezan konfinamendu sasoiaren erantzuna itzela izan da. ANBOTOK, esate baterako, bikoiztu egin zuen bere audientzia. Jendeak bere inguru hurbilean zer gertatzen zebilen jakin gura zuen. Gainera, jasotzen zebiltzan informazio uholdearen aurrean tokiko euskarazko hedabideok dugun sinesgarritasunak indarra hartu du. Oso eskertuta gaude gure lanak izan duen erantzunagaz", azaldu du Maialen Zuazubiskar *anboto.org* webguneako arduradunak.

### Urteurren berezia

20 urte ez dira egunero betetzten. Horregaitik, ANBOTOKo lantaldeak bere komunitateagaz ospatu gura du. "Gustatuko litzaziguke ospakizun bat antolatzea Plateruenean, aurrekoetan egin izan dugun moduan. Baina aurten ezin izan dugunez, beste modu batera egitea pentsatu dugu", azaldu du Guenetxea zuzendariak. Bideo bat grabatu dute ANBOTOren papereko ale bat Iurretako bulegotik Anboto mendiaren tontorrera eramaten, eskurik esku, hainbat kolaboratzailearen laguntzagaz. "Bideo honen bitartez, babesten gaituen komunitatea islatu gura izan dugu: lantaldea, irakurleak, babesleak, kolaboratzaileak... Denon artean sortzen dugu ANBOTO", dio Guenetxeak.



## “Durangalderako euskarazko erreferentziatzko proiektu bat sortzea zen asmoa”

Juan Luis Erzilla eta Idurre Maortua ANBOTOren sorreran lanean ibili ziren. Orduko kontuez berba egin dugu eurekin

**SORTZAILEAK** • MAIALEN ZUAZUBISKAR  
Martitzenean, azaroak 9, 20 urte bete ziren ANBOTOren lehenengo alea kaleratu zela. Juan Luis Erzilla Alberdi durangarra ANBOTOren sortzaileetarikoa bat eta Idurre Maortua Aiarzaguena zaldibartarra lehenengo kudeatzailea izan ziren.

**20 urte joan dira ANBOTO sortu zenutela. Zelan gogoratzen dituzue urte haiek?**

**Juan Luis Erzilla:** Anboto sortu baino urte batzuk lehenago, Berbaroko presidente izateko deitu zidaten. Ordurako, Eraz aldizkaria martxan zegoen. Erazeko lantaldeak oso lan ona egiten zuten, ideia onak zituen, baina formatu aldetik ez zen bideragarria.

**Idurre Maortua:** Aldaketa guztiek

sortzen dituzte erresistentziak, eta Anbotoren sorrerak ere izan zituen. Egiteko moduetan aldaketa bat proposatzen zen. Behin erabakia hartuta, determinazioa behar izaten da aurrera egiteko. Seguruena gaur denbora gehiago emango genion prozesuari, taldearen kohesio handiagoa lortzeko. Ez da erraza asmatzea. Proiektuaren mesedetan egin genuen, eta, zorionez, egitasmoak bere bidea egin du.

Proiektuari dagokionez, hasieratik helburu argi bat zuten. Durangalderako euskarazko erreferentziatzko proiektu bat sortzea zen asmoa, komunikabideek saretzea lortzen dutelako. Gainera, erronka handi bat zegoen: euskaraz irakurtzera ohituta zegoen jendearentzat eta ez zegoenarentzat irakurtterra-

za zen komunikabide bat sortzea. Hor Xabier Amurizak lan itzela egin zuen eta lehenengo estilo liburua sortu zuen.

Bestalde, aurrera egiteko, Goienaren proiektua hartu genuen erreferentziatzat. Debagoienan

**Nik neuk konfiantza handia nuen proiektuan, banekien-eta esku honetan zegoena. Behin txori txikia hegaz hasita, txori handi bihurtu da**

euskara elkarteek garai loriatsu bat bizi zuten eta proiektu hark indar handia zuen. Orduan, Joxe Aranzabalegaz hainbat batzar egin genuen eta hainbat gako eman zigun gure proiektua bideragarria izateko. Esaterako, Durangaldeko ikuspegia gehiago lantzea zen helburuetariko bat; baita proiektuak zabalkunde handiago bat izatea ere. Horretarako, 10.000 harpidedunetara heltzea ipini genuen helburu. Gainera, urratsak eman ziren Otxandiora eta Zornotzara ere zabaltzeko proiektua. Guretzat garrantzitsua zen harpidedun kopuru horretara heltzea, nahiz eta dohainik izan, azkenean zenbat eta zabalkunde handiagoa eduki sinesgarritasun handiagoa izango genuen, bai

udaletatik diru laguntzak lortzeko, baita publizitate arloan bezeroak lortzeko ere.

**Orduan, ANBOTO sortu zenuten.**

**J. L. E.:** Sasoi hartan, kudeatzaile bat behar zen proiektua aurrera ateratzeko, gestioen ezagutza minimo bat zuten pertsona bat. Hainbat lan-elkarrizketa egin genuen, eta, halako batean, Idurre agertu zen. Idurre ikusi nuenean neure buruari esan nion: "Hamen dxatok gure salbaziñue!". Eta horrela izan zen, Idurre izan zen proiektuaren gestioa ulertu zuena, ANBOTOren salbatzailea.

Orduan, kolaboratzaile sare handitxo batez ipini zen martxan proiektua. Herri guztietan kolaboratzailearen bat geneukan. Baina ez geneukan banatzailearik, eta ni neu hasi nintzen banatzaile lanetan, neure kotxeagaz.

**Nola gogoratzen dituzue hasierako urte haiek?**

**I.M.:** Nire lehenengo lana izan zen, eta gerora beti pentsatu izan dut pertsonalki itzelezko eskola izan zela. Hor elkartu ginen alde batetik jende gazte eta indartsua; gaztetasun horrek ezer galtzeko beldurrik eza ematen du. Beste alde batetik, Juan Luisen moduko jende esperientziaduna zegoen. Lantalde polita elkartu ginen, ilusio handia genuen eta Berbaro taldearen babesa geneukan. Hori ezinbestekoa zen. Horrez gainera, Berbarok egituratxo bat ere bazuen, eta hori garrantzitsua izan zen.

Gogoan dut hasierako urte haietan denerik egitea egokitu zitzaiagula: herrietan aurkezpenak egitea, udalekin hartu-emanen egotea, bideragarritasun planak egitea... Hori eskola inportante bat izan zen niretzat.

**Lantalde polita elkartu ginen, ilusio handia genuen eta Berbaro taldearen babesa geneukan. Hori ezinbestekoa zen**

**J. L. E.:** Sasoi polita izan zen, baina gogorra ere bai. Hainbat proiektu genuen buruan, eta batzuk bidean geratu ziren, nahiz eta ahalegina egin genuen aurrera ateratzeko.

**Itxaroten zenuten proiektuak horrenbeste irautea?**

**J. L. E.:** Nik neuk konfiantza handia nuen, banekien-eta esku honetan zegoena. Behin txori txikia hegaz hasita, txori handi bihurtu da.

**I.M.:** Proiektuan sinesten genuen. Gainera, bazuen ibilbide bat egin da, bai Berbarotik baita Erazetik ere. Proiektuak bazuen ameslari puntu bat, baina Juan Luisek hankak lurtean izaten eta aurrera egiten lagundu zigun.



Anbotoren sorrera



Lokal berriaren aurkezpena



500. aleko ospakizuna



**anboto**

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2021eko azaroaren 12a  
20. urtea - 870. alea

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.  
**Erredakzio burua:** Ekaitz Herrera Azkarraga.  
**Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo Txabari.  
**Publizitatea:** Alazne Salcedo Artetxea eta Goretzi Alonso Armendia  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.  
**Maketazioa:** Ainhoa Iraola Mazorriaga.  
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

LAGUNTZAILEAK

# Sorrera, lokal aldaketa eta 500. alea 20 urteko ibilbideko mugarren artean

Argazkien mosaiko honek 2001etik hona egon den hainbat mugarri errapasatzen du

## ANBOTO • J.D.

ANBOTO astekaria 2001ean sortu zen eta urte hartako azaroaren 9an kaleratu zuen lehenengo alea, Durangaldeko informazioa euskaraz emateko helburuagaz. 20 urtera heltzea posible egin duen makineria orduantxe ipini zen martxan hainbat euskara elkarteri eta eragileri eskerrak, eta lehenengo argazki sortak une hori islatzen du, proiektu berria jendaurrean aurkeztu zen eguna.

Lehenengo bederatzi urteak Santa Ana plazan zegoen pisu batean egin zituen. Baina, 2010ean, garai berriak eskatzen zuenera moldatzeko, urrats garrantzitsu bat eman eta lokal berri batera tokialdatzeko ordua heldu zen. 2010eko urtarriletik, ANBOTOK Iurretan du erredakzio berria, Bixente Kapanaga 9an. Bigarren argazki sorta anbotozaleekin lokal berria inauguratzeko egingako ekitaldikoa da.

Lehenengo ale hartatik, ANBOTOKo irakurleek barikuro-barikuro jaso dute astekaria etxeko buzoian. 2013ko maiatzaren 10ean, astekariaren 500. alea heldu zen Durangaldeko postontzietara, eta zenbaki borobil eta esanguratsu hori egun oso-

rugarren argazki sortan ikusten den lez.

## 'Euskarak 365 egun'

ANBOTO eta euskara banatu ezinena bidelagunak izan dira abentura honetan, eta hartu-eman hori hilezkortzen duten argazkiak ere badaude. Urte birik behin euskararen alde antolatzen den Korrika lasterketa erraldoian, ANBOTOK behin baino gehiagotan eraman du lekukoa Durangoko kaleetan zehar.

Euskararen erabilera sustatzeko ekimenak ere bultzatu izan ditu ANBOTOK, Berbaro taldeagaz batera, eta Euskararen Nazioarteko Egunaren harira antolatzen den *Euskarak 365 Egun* kanpaina da eurretari bat. Denboragaz, Euskal Herri osora zabaldu zen ekimen arrakastatsua bihurtu zen.

Emakumeen Nazioarteko Eguneko aldarrikapenekin ere urtero-urtero bat egiten du ANBOTOK.

## Urte birik behin euskararen alde antolatzen den Korrika lasterketa erraldoian parte hartzen du

ko jaialdi batez ospatu zuen 500XZu izeneko ekimenaren barruan. Urteurren egunaren osteko asteburuan, egun osoko jai egin zen Durangon, euskaltzale guztiekin batera ospatzeko: bizikleta festa, dantza saioa, pintxo banaketa, poteoa, bazkaria, ekitaldia, erromeria... izan ziren egun hartako osagai batzuk, hi-



## Emakumearen nazioarteko eguna



## Korrika








# merkataritza gida sarean

[anboto.org/gida](http://anboto.org/gida)



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko  
merkataritza gida BERRIA  
euskaraz eta sarean!***

**Merkatartza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902  
Argazkiak - Datuak - Kokapena  
(urtean 50€)**





# Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

## Batu Anbotoko whatsapp taldera



**Bidali alta**  
**688 635 041**  
**telefono zenbakira**

**\* Izan zaitez berriemaile ere.**  
**Bidali zure argazki eta bideoak**

**anboto**

2014



2015



2017



2018



2019





2020



2021



# “Euskara hutsezko espazioak egon behar dira, euskaraz bizi daitekeela erakusteko”

Ibilbidea azpimarratzeaz gainera, Berbaroko Markel Sanchezek azpimarratu du sareak euskarazko edukiak behar dituela



**Markel Sanchez Zelaia**

Berbaro elkarteak  
koordinatzailea

DURANGO | 1991

## HERRIGINTZA • ARITZ MALDONADO

**Berbaro elkarteak ANBOTOren sorreran parte hartu du hasieratik. Orduetik egindako ibilbidea eta aurrera begirako erronkak aztertu ditu Markel Sanchez koordinatzaileak.**

**Berbarok ANBOTOren proiektuaren sorreran parte hartu zuen. Zein hausnarketa egiten duzue?**

ANBOTO proiektu estrategikoa izan da hasieratik Berbarorentzat. Testuinguruan ipintzeko, Berbarorentzat epe laburrean oso garrantzitsuak ziren proiektu bi sortu ziren: 2001ean ANBOTO jaio zen, eta 2004an Plateruena. Oso denbo-

ra gutxian, proiektu garrantzitsu bi martxan ipini ziren. Euskararen normalkuntzan ahalik eta esparrurik gehienetan espazioak sortzea zen helburua. ANBOTOgaz Durangalde mailako euskarazko komunikabide bat sortzea zen asmoa, eta Plateruena kulturgingtzara bideraturiko proiektua zen.

Urteetan zehar, hiru guneok Berbaro Taldea delakoan parte hartu dugu, bakoitza bere autonomiagaz, eta aliantza modura funtzionatu dugu, bakoitzak bere hausnarketak plazaratzeko, eta bakoitzaren funtzioen gainean pentsatzeko. Plateruena itxie-

ragaz, marko hori ez dago hain aktibo, baina bere fruituak eman zituen.

**Zelako garrantzia dute horrelako aliantzek euskararentzat eta Durangaldearentzat?**

ANBOTOk proiektu estrategiko bat izaten jarraitzen du, Berbarok bestelako parte hartzea izan arren. Garrantzi handiko proiektua da, Durangaldean euskarazko komunikabide bakarra den neurrian. Garrantzi handia du, 20 urteotan erreferentzialtasuna irabazi duela, eta horri eskerrak etorkizunera begira ere oso ondo kokatuta dago eragiten jarraitzeko eta bestela-

ko proiektuetan parte hartzeko. Bestalde, tokiko komunikabide bat euskara hutsean egotea normalizatu duelako da garrantzitsua ANBOTO. Pertsonalki, existitzen diren eta errealitate bat diren bestelako tokiko komunikabideetan euskararen presentzia sikiera erdira igotzea gustatuko litzaidake, baina hori beste kontu bat da. Euskara hutsean funtzionatzen duten bestelako espazioak egon behar dira, eta horiek zentralitatea eduki behar dute, euskaraz bizi ahal dela erakusten dutelako. Zenbat eta horrelako proiektu gehiago egon, hobeto.

**Zeintzuk lirateke aurrera begirako aukerak eta mehatxuak?**

Herriko komunikabideez berba egiten dugunean, argi dago Anbotok erreferentzialtasun bat lortu duela urteotan, baina Interneten aro honetan, digitalizazioagaz, Anbotoren erreferentzialtasuna apur bat jaitsi egin dela iruditzen zait. Alde batetik, erdarazko beste hainbat komunikabide sortu da urteotan, euskararen presentzia testimoniala dutenak; eta bestetik, erdarazko komunikabide horiek egotera, eta Interneten edukiak sortzeko gaur egun dauden erraztasunekin, erreferentzialtasun horri eustea gatxagoa da. Anbotok, azken finean, komunikabide bat da eta kazetaritza egiten du, baina gaur egun, sare sozialekin, edo-

**ANBOTOk proiektu estrategikoa izaten jarraitzen du Berbarorentzat**

zerk hartu dezake albiste maila. Gainera, sare sozial batzuetako herri mailako talde masiboetan edo antzerako foroetan edukiak sortzerakoan, kalean izaten diren inertzia berdinak izaten dira, hau da, iruzkinak eta eztabaidak daudenean, bakar batek erdaraz eginez gero, euskaldunek ere erdarara jotzen dute.

ANBOTOk badu bere tokia, eta, horrenbestez, aukera handiak. Nire ustez, hain zuzen ere, kazetaritza egiten jarraitu behar du, erreportajeak, elkarrizketak eta egunerokotasunaren jarraipena egiten jarraitu behar du, baina beste gune bat sortu beharko luke, ANBOTOren txapelpean baina leku guztiz bereizi bategaz, edonork euskarazko edukiak sortu ditzakeena. Euskarak eduki hutsalak ere izan behar ditu; albiste mailara ailegatu barik, jendearen interesekoak izan daitezkeenak. Eta hor komunitate bat sortu ahalko litzateke, euskaraz funtzionatuko lukeena, euskaraz sortuko lukeena, Anbotoren txapelpean egongo litzatekeena.



**clínica dental hortz klinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara adituak esterilizazioan.  
Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RPS: 145-13

**MAKALLAU saltsan**

**saltsan**  
KONFIANTZAN

MAKALLAU SALTSANen bakailaorik onena eta osagai guztiak eskaintzen dizkizugu zure lapikoak arrakasta handia izan dezan: piper txorizeroa, baratxuri gorria, kalitate handiko olio eta.

Bakailao koinatua ere aurkituko duzu, mota guztietan: pil-pil, bizkaitarra, ajoarrieroa, kroketa, bakailaoz betetako piperrak, etab.

Eta ez galdu Nafarroako kalitate-labeldun kontserbako produktuak: Zainzuriak, orburuak, piperrak, etab.

Enkarguak egiteko edo informaziorako, telefonoz edo whatsapp bidez gugaz kontaktuan jarri: 688 773 205 / 688 734 329



## “Demokraziak kazetaritza behar du propagandaren gaineratik, kontrastea diskurtso bakarrari kontra egiteko”

Goiena komunikazio taldeko zuzendaria eta Tokikom euskarazko tokiko hedabideen bateraguneko presidentea da Iban Arantzabal. Gertutik ezagutzen du ANBOTOn ibilbidea

### TOKIKOM • JONEGUENETXEA

**Tokiko hedabideen artean erreferente da Debagoienako Goiena komunikazio taldea. Telebista, papera eta irratia uztartzen dituen egiturak 20 urte bete ditu, ANBOTOk legez.**

**ANBOTOk 20 urte egin ditu. Zer dator kizu burura?**

Datorkit Eraz, Berbaro eta Plateruena. Datozkit ANBOTOTik pasatutako lankideak, eta daudenak. ANBOTok lortu du euskarazko eskualdeprentsa nor izatea Durangaldean.

**Zelan baloratzen duzu ANBOTOn ibilbidea?**

Emankorra da. Salto kualitatibo eta kuantitatibo egin du ANBOTOK. Euskara jarri du informatzeko ohituretan. Askotan ahaztu egiten dugu, baina kazetaritza beharrezkoa da Durangalde egituratuago, gardenago eta eraginkor baterako.

**Goiena ere urteurrena ospatzen dabil. Zer antolatzen zabilzate?**

Komunitatea indartzea erabaki dugu. Ikasi dugu kazetaritza ez dela informazioa ematea bakarrik.

Goienakide gehiago egiten eta haiak mimatzen dihardugu orain. **Durangaldetik Goienaren proiektu erreferentzia lez hartzen dugu. Zeintzuk dira Goienaren erreferentziak?**

ANBOTO, esaterako. Tokikomeko 76 toki komunikabideetako bakoitzetik dago zer ikasi. 200 lankide daude Tokikomen, eta sorkuntza etenbako horretan beti daude "kanapeak". Bestalde, Goienatik urteetan jarraitu diegu, esaterako, ideia hauei: Guardian Media Group-etik ulertu dugu enpresa multimedia ezin dela gerontokratikoa izan eta ezin duela hedabiderik zaharrena gurtu: papera. Edo Roy Greensladeri irakurri genion kazetaritzak kultura berriak bere izan behar dituela: erreminten integrazioa, espazioena, lan metodoena eta hedabide bakoitzaren hizkuntzarena; The Daily Telegraph-en konbergentzia prozesu bat behar genuela ulertu genuen, eta astiro egin beharrezkoa, gutxienez lau gai landuz: teknologia, enpresa, profesionaltasuna eta editoriala; The New York Times-ek marka globala nola egin duen edo erredakzio integratuen garrantzia estratagema enpresarialaren ikuspuntutik; El

Diario-ren bazkide eta eredu; BBC-ren lana tokikoak eta demokrazia lotuz; katalanen egituretatik ikasi... **Hedabideen mundua zitzu bizian aldatzen dabil. Zeintzuk dira tokikoen erronkak?**

Anbizioa, ez erortzea bertan-goxo eredueta: irakurleak irabazteko eta lehendik daudenak asetzeko. Entzuten ditut iritzi batzuk kantitateei pisua kentzen. Ez nago ados. Euskarazko komunikaziora ahalik eta lagunik gehien erakarri behar ditugu, eta gero eutsi. Estatistikak kudeatu.

Erronkak bi arlotan banatuko nituzke: kudeaketakoak eta edukietakoak. Kudeaketakoei dagokienez: kidezak landu beharko ditugu; pertsonalizazioa edukietan eta zerbitzuetan; hasita gaude inteligentzia artifiziala erabiltzen gure prozesuetan eta horretan sakondu behar dugu; Whatsapp, Facebook, Amazon... gure lagunak ez direla onartu eta burujabetza teknologikoan sakondu. Teknofeudalismoa arriskutsua da.

Edukiei dagokienez: sinesgarritasuna da erronka, eta, horretarako, inpartzialtasuna behar beharrezkoa da. Badakigu ez dagoela objektiboa edo neutrala den kazetaritza, baina ezin dugu objektibitatearen bila jardun barik lan egingo duen kazetaritza bultzatu. Ahalegin hori zor diegu gure komunitate zabalari. Mundu mailako komunikazio profesionaleri egindako galdeketa handi batean, %88k diote inpartzialtasuna izango dela gakoa hurrengo urteetan. Arriskua ikusten dut tokikoetan ere. Udalak, esaterako, hasi dira folletoiak ateratzen, alkatearen bi-

deoak egiten, multinazionalen sare sozialak erabiltzen alde bakarrek mezuak emateko... eta kontuz! hor ez dago kazetaritza. Demokraziak kazetaritza behar du propagandaren gaineratik, kontrastea diskurtso bakarrari kontra egiteko. Askotariko iritziak batu behar ditugu, zuen eskualdeko Sarrionandiak dioen moduan: "Norberaren egiak besteekin osatzen dira; besteen ikuspegiak isilduz eta desitxuratuz ez dago gizarte osasunik"

**Euskarazko komunikaziora ahalik eta lagunik gehien erakarri behar dugu, eta gero horiei eutsi. Estatistikak kudeatu behar dira**

**Pandemian tokiko hedabideen kontsumoa asko hazi zen. Zein interpretazio egiten duzu?**

Beharrezkoekin lotuta dago. Zerbitzuak zeintzuk diren, herriko kutsatu kopurua... Pandemia globala bati ere hartzen zaio neurria lokalean. Erabiltzaile kopuruek goia jo zuten, bai ANBOTOn eta bai beste toki hedabideetan. Erakundeetako publizitateaz arduratzen direnek ikusi ez dutena ikusi dute herritarrek.

**Gaur bertan, Tokikom jardunaldiak. Zein gaitan ipiniko duzue azpimarra?**

Batetik, formakuntza jasoko dugu BBC, Het Belang van Limburg eta El diario-ko profesionalengandik. Eta kazetaritza ona ageriko egiteko banatuko dira sariak, izan ere, Euskal Herrian, gaur, kazetaritza ona egiten da tokikoetan.

### Durangaldeko Behargintza ZERBITZUAK:



**PRESTAKUNTZA  
ETA ENPLEGUA**

Lana bilatzeko orientazioa eta laguntza

**ENPRESA BERRIAK  
SORTZEA /  
AUTOENPLEGUA**

Aholkularitza eta formazioa

**ENPRESAK**

Enpresei laguntza eta aholkularitza

**946 232 522**

Landako Elkartegia (Durango)



Durangaldeko Behargintza  
Euskarazko Gaiaren Agentzia  
Agencia General de Servicios



Durangaldeko Mankomunitatea  
Mancomunidad de Durangaldea



2017an, Anbotok eta Berbaro taldea parte ziren Guka bilguneak jaurti zuen San Fausto jaietara eman zien txupinazoa.

## Talde ikuspegia eta kalitatea hobetzeko ahalegina, ANBOTOn 20 urteetako bidelagunak

Sorrerako helburuak ahaztu barik, ANBOTOn unean uneko beharrezanetara egokitzen joan da sortu zenetik hona. Ahalegin kolektibo horri eskerrak, hainbat sari eskuratu du, bai astekarian landuriko erreportajeengaitik, bai ikus-entzunezko lanengaitik

### ANBOTO • JOSEBA DERTEANO

Inguruan mundua eta gizartea eraldatzen joan diren neurrian, Anbotok ere egoera eta eskakizun berrietara egokitzen joan behar izan du. Etenik bako lana izan da, erreferentzialtasunari eusteko prozesu konstante bat, betiere jatorria eta sortu zeneko helburuak ahaztu barik.

Eusko Jaurlaritzak ematen duen kudeaketa aurreratuko diploma eskuratzea izan da bideko erronketariko bat. Diploma

horrek islatzen du ANBOTOK kudeaketa sistema eta eragin-kortasuna hobetzeko egin duen ahalegina, kalitatezko produktu eta zerbitzu baten mesedetan.

### *Durangoko bonbardaketari buruz egindako erreportajeak edukirik onenaren saria jaso zuen Tokikom sariketan*

Euskara da Anbotoren birika. Anbotozaleek euskaraz arnasten dute, eta arnas kolektibo hori hauspotzea izan da komunikabide honen helburuetariko bat, ateetatik kanpora zein barrura begira. Ildo horretatik, 2015ean Bikain ziurtagiria eskuratu zuen. Kanpora begira ere euskara sustatzea izan da ANBOTOn helburuetariko bat. Hainbat urtean, Durangon euskararen sustapenean lan egiteko hainbat elkartetan osatzen duten Guka bilgunearen parte da,

Berbaro taldearen barruan, AEK, Euskal Herrian Euskaraz eta Ibaizabal ikastolagaz batera. Eragile horiek guztiek osaturiko Durangoko euskalgintzak txupinazoa jaurti zuen sanfaustoei hasiera emateko.

### *'Jantzari' dokumentala saritua izan da eta Filmin plafaforman ikusi daiteke gaur egun*



'Jantzari' dokumentala Filmin plafaforman ikusi daiteke.

Jaietan txupinazoa jaurtitzeko eskaintza Gukako kide bakoitzak bere aldetik zein elkarlanean eginga dako ibilbidearen aitortpena dela azaldu zuten. Pregoian, Berbaroko Fernan Ruizek eta EHEko Ane Zartek berba egin zuten euskalgintza-izenarekin.

Bestalde, Durangoko Udalaren Euskara Kontseiluan ere parte hartzen du ANBOTOK.

### Tokikom sariak

Tokian tokiko euskarazko hedabideek osatzen duten Tokikom plataformaren parte da ANBOTO, eta elkargune horrek urtero antolatzen duen sariketan sari bat baino gehiago irabazi du. 2017an, Durangoko bonbardaketaren 80. urteurrenaren harira kaleraturiko '80 urteko zauria' erreportajeak urteko edukirik onenaren saria jaso zuen. "Gaiaren lanketa sakon, mamitsu eta anitza" azpimarratu zituen epaimahaia saria emateko arrazoien artean.

2020an ere ANBOTO astekaria-arentzat izan zen edukirik onenaren saria, Zaldibarko hondakindigiko gertakari latzei buruzko erreportajearengaitik. "Durangaldeko hedabideak hiru orrialdeko tarte zabala eskaini zion, ikuspuntu, testigantza eta kazetaritza molde ezberdinak uztartuz", arrazoitu zuten epaimahaioek orduko hartan.

2019an, berriro ere Durangoko bonbardaketa gaitzat hartuta, Irati Eguren ilustratzaileak landuriko 'Martxoak 31 zituen' lanak




Irati Egurenen 'Martxoak 31 zituen' azala

aipamen berezia jaso zuen. "Kasu honetan ere, irudi soil batek mezu indartsu eta hunkigarria ematen du", arrazoitu zuten orduan.

### 'Jantzari' dokumentala

ANBOTOK landuriko 'Jantzari' dokumentala ere saritua izan da. Iurretako dantza taldeak parekidesunera heldu arte egindako bidea lantzen du dokumentalak. Besteak beste, dantza munduan parekidesunaren bultzatu duten hainbat pertsonaren gogoetak ere jasotzen dira. Cine Invisible jaialdian saritu zuten, eta, estreinatu zenetik, Euskal Herri osoko areto askotan eskaini dute. Gaur egun, Filmin plafaforman ikusi daiteke.



Lekuan  
lekuko  
20  
anboto  
urte

[www.anboto.org](http://www.anboto.org)



# "ANBOTOk aurrera egin duela ikusteak izugarritzko euforia ematen dit, ez delako beste egunkari baten modukoa; etxekoa da"

Xabier Amuriza Sarrionandiak (Etxano, 1941) gertutik jarraitu zion ANBOTOkren sorrerari. Hedabide honetan erretiroa harturiko lehenengo behargina ere bada

**BERRIZ** • EKAITZ HERRERA

**Orain 20 urte hasitakoa hazten joan da. Zelako aurreikuspenak zenituzten hamarkada bi atzerago?**

20. urteurrena ailegatu da. Eta ondo ailegatu da. Nik orain ez diet ANBOTOkren barruko gorabehereri hainbeste jarraitzen. Kontu ekonomikoak, batez ere, horixe izaten da larriena. Ekonomia ondo doanean gauzak hobeto joaten dira, baina ekonomia ondo joate hori ANBOTOk ez dakit inoiz izan den. 20 urte egitea itxaroten nuen, proiektua sinesgarria zelako. Hasiera hura indartsua izan zen, potentea. Sinetsita geunden. Martxa onean ikusi nuen ANBOTOk etxe guztietara heltzen. Zabal-kundea bera mirari handia zen. Astero etxe guztietara milaka ale helaraztea gauza handia da.

**Zuk duzu ANBOTOk lehenengo jubilatua izateko ohorea, eta oraingoz bakarra zara.**

Bai, bai. Eta hortxe daukat jubilatutako koadroa. Lankideek azal berezi bat egin zidaten. Gordeta daukat. Hunkigarria

izan zen. Jubilatutako gero ere luzaroan bizi izan dut lantaldea lagunarte modura. ANBOTOk aurrera egiten duela ikusteak izugarritzko euforia ematen dit. Ez da beste egunkari bat hartzearen modukoa. Hau gure etxeko aste-karia hartzea da.

**Euskara zuzentzaile lanetan arituz zinen. Zelan gogoratzen duzu hementxe lana?**

Lana ohikoa zen. Presaka eta korrika aritzen ginen, nahiz eta eguneroko baten abiadura estresagarri hori ez zuen. Astean hiru egunez joaten nintzen bertara. Gustura joaten nintzen. Bizibide erdi bat izan zen niretzat. Halako asasku bat ere bazen. Erredakzio hura apur bat ilunpea zen. Eztulka etorri ohi nintzen, han hezetasun handia zegoen eta. Lantaldea gaztea zen eta aitita edo aitabitxi modura hartzen ninduten denek. Euskalkia eta batua elkarregaz zeudeneko garaia bizi izan nuen.

**Zure lankide ohiek diote Amuriza beti sartzen zela pozik lanera. Atsegina zela zugaz lan egitea.**

Bai, izan daiteke. Uste dut hori transmititzen nuela eta oraindino ere transmititzen dudala nabilen tokietan. Pozik agertzen naiz pozik ez nagoenean ere. Horixe da nire printzipioa. Zabaldu behar dena da poza. Gogo transmititu egin behar duzu. Niri berez irteten dit kariñoak, pozik bizi naiz. Lanean pasatzen dugu denborarik gehien, eta lanean ernegatuta bazabiltza, bizitza izorratzen duzu. Distrakzioez ez, baina distentsioez hobeto lan egiten delakoan nago.

**Zein sentipen nagusitzen zaizu ANBOTOk esku artean hartzerakoan?**

Nire lan bizitza bertan amaitu zen. Azkenengo bost urteak ANBOTOk egin nituen, 60 urte nituenetik 65 urte egin arte. Hori guzti hori hartzen dut astekaria hartutakoan, nire bizitzaren zati bat. Oso zati pozgarria, gertukoa, hurbila. ANBOTOk hartzen dudanean aparteko kariñoa hartzen dut esku artean.



## "Opari handi bat da herri mailako kultura hori zabaltzea, Durangaldeko herri bakoitza bizirik dagoela ikustea"

Nerea Mujika Ulazia (Durango, 1960) Gerediaga elkarteko presidentea da. Azpimarratu du eragile biek, bai ANBOTOk eta bai Gerediagak, garai berrietara egokitzen asmatu dutela

**DURANGO** • EKAITZ HERRERA

**Gerediaga elkartearen eta ANBOTOkren arteko aliantza begi bistakoa da euskara eta kultura ulertzeko.**

Dudarik barik. "ANBOTOk, Durangaldeko astekaria". Hori esatea jada bada Gerediagarekiko lotura azpimarratzea. Zergaitik? Gure helburu nagusiak, Gerediaga martxan ipini zenetik, Durangaldeko kultura aztertzea, babestea eta zabaltzea izan direlako. Eta, jakina, zabalkunde horretan, dudarik barik, ANBOTOk laguntza handia eskaini du. Hedabide anitza da eta bene-benetan diot hau. Adin guztietako kazetariak eta parte hartzaileak dituelako, herri bakoitzeko gaiak lantzen dituelako. Gozatu egiten dugu eta opari handi bat da herri mailako kultura hori zabaltzea, Durangaldeko herri bakoitza bizirik dagoela ikustea.

**Eragile biak bat datoz euskarari eta kulturari dagokionez. Zer litzateke**

**Durangaldea euskararik eta kulturarik barik?**

Tristea. Tristea eta arraroa. Astero gertatutakoa, gertatuko dena eta sentitzen dena euskaraz kontatzea itzela da. Berdin kulturari dagokionez. Hogei urte hauetan egondako aldaketen aurrean egokitzen jakin du. Baina ez hori bakarrik. Helduei, gazteei eta umeei begirako edukiak lantzen dituzue. Eta prestatzen dituzuen jolas horiek nagusiagoak garenoi ere mesede egiten digute!

**Zein da 20 urte hauei buruz egiten duzun balantzea?**

Goi mailakoa. Denok ari gara gure lanpostuetan behar dugun hori era digitalera zelan moldatu ikasten. Ni paperzalea naiz. Autobusean noala, irakurtzea gustatzen zait. Gazteagoek, zer esanik ez. Mugikorrean irakurtzen dute. Bilakaera horrek erakusten du helburu argi bat duzuela, eta helburu horretara ailegatzeko prest zaudetela beha-



**"Astero gertatutakoa, gertatuko dena eta sentitzen dena euskaraz kontatzea, itzela da"**

rezko aldaketak edo gehiketak egiteko. Begien bistakoa da hori. Gerediagak ere asmatu du egokitzen lanetan.

**Izan ere, ezagutzen dugun ohiko erara moldatuta etorriko da Durangoko Azoka.**

Bai, aurtengo Azoka, Bada. Eta espero dugu normalagoa izatea. Aurrez aurrekoa izango da, eta baita digitala ere. Berba bi horiek itzelezko planifikazioa eta lana eskatzen dute. Eta, jakina, ANBOTOk ere hortxe ikusi gura dugu, urtero legez.





**MAITE  
EUBA AREITIOAURTENA**

**Udal Euskaltea**

## **Urteak joan urteak etorri, gure bizitzako beste bat zara**

Jaio zinen momentutik maitemindu ninduzun, hain zinen maitagarria, hainbeste desio genuen zure etorrera... eskuarte hartu eta maite-maite laz-tantzen hasi nintzen urduri, gogotsu, zorionez gainezka. Inguruko herrieta-koak jaiotzaz enteratu ahala, hurreratz-zen hasi ziren, arreta piztu zenuen. Bai horixe!

Ezagutzeaz batera asko eta asko harpidetuta geratu ginen. Barikuak ez lirateke berdinak izango zu bar-rik. Bisitan etortzen ez zaren astean hutsune handia nabaritzen dugu gurean, etxean, euskaltegian...non ez! Urteak joan urteak etorri, gure bizitzako beste bat zara; oso beharrezkoa, bizi-bizia. Zenbat laguntzen diguzun, maitea! Gure komunitateak ezingo luke aurrera egin zulako bar-rik.

**Gure komunitateak  
ezingo luke aurrera  
egin zulako barik**

Badakit ardura handia dela gazte batentzat Durangaldeko euskaraz jarduteko komunikabide bakarra izatea. Bai, arrazoi duzu, askotan bakar-bakarrik sentitzen zara hain-beste egitekoren aurrean, baina ez etsi. Eutsi gogor! Horregatik, zure 20. urtebetetzean denon indarrak batu, ikasle, irakasle, euskaltzale oro eta denok hauspotuko zaitugu ale eder bakar horrek merezi dituen laguntza, babesa eta bizitza eduki ditzan.

Zorionak, Anboto! Bizitza ona eta luzea opa dizut.

20 urte barru berriro ere zure izenean topa egin dezagun desioan, besarkada handi bat, laztana.



**ARITZ LASARGUREN  
OTZERINJAUREGI**

**Kriskitin**

## **Astekaritik gogokoen dudana gertukoen proiektu eta afizioen berri jakitea da**

Ustekabean doaz urteak aurrera eta abiada berean aldatzen doa bizitza, baita gure bizitzeko era ere. Mundu globalizatu honetan askotan galdu egiten gara, lurrindu, desagertu, gertukoaz baino urrutikoaz gehiago dakigun garai hauetan. Inoiz baino gehiago beharrezko dugu gure ger-

tuko berri jakitea, gure auzotan gertatzen ari denaz, gure herritarren nondik norakoez eta gure komunitatean ditugun kezka zein desioez.

Ohartu orduko 20 urte igaro dira Anbotok Eraz aldizkariari lekukoa hartu eta lehen alea plazaratu zue-netik. Paperean hasieran, digitalki ere ondoren, esan dezaket kontziente naizenetik izan dudala Anboto aste-karia bidelagun. Gertuko informa-zioa Euskaraz eskainiz, inguruko albisteen berri emanez, herrikideen proiektu zein ekintzei zabalkunde-a emanez, Anboto komunitatearen bi-tartez herritarren ahotsa bermatuz... eta, batez ere, 20 urtez Euskara erdi-gunean jarriz, gure ingurua eta ingu-rukoak ezagutzera emanez, txikitik eta txikitasunetik eraginez.

Astekaritik gogokoen dudana gertukoen proiektu eta afizioen berri jakitea da. Are gehiago, kultur proiektu edo sorkuntzen inguruko informazioa denean. Anbotori esker izan dut inguruko artista eta sortzai-le askoren berri, haien proiektu, ideia eta ekitaldien inguruan. Gertukoak izan arren, askotan nekez ezagutzen dugu elkar, eta Anbotok bide luzea darama zerbait kontatzeko duen oro-ri boza ematen.

Euskaraz, gertutasunez, mimoz eta profesionaltasunez bidea egiten jarrai dezazula.

Urte askotarako! Biba Anboto!



**MIGUEL  
ZUGAZA MIRANDA**

**Arte Ederren Museoko  
zuzendaria**

## **Zortea dugu gu denontzako horrelako hedabide bat bizirik mantentzeagaz**

2001ean Anbotok bere bideari ekin zionean, Madrilerako bidea hartzea egokitu zitzaidan, Prado museoa-lan egiteko. Bertan pasatu nituen 15 urteetan, astekariaren maiztasun

berdinagaz, astebururo etxera itzul-tzen nintzen familiagaz eta herriagaz bat egiteko. Atsedean barik, atean zain izaten nuen Anbotoren asteroko ale koloretsua.

Egia esan, zortea dugu gu denontzako horrelako hedabide bat bizi-rik mantentzeagaz. Komunikabide zorrotza izateaz gainera, interes eta eduki aniztasun handia dauka, betiere tokikotasunak ematen duen ikuspuntu berezi horretatik landuta. Gertuko albisteak lantzeaz gainera, interes orokorreko gaien hausnarketa patxadatsua ere egiten du. Bestalde, balio handia ematen diot urte askoan emakume bat izatea proiektua lideratzen bere orrialdeak belaunaldi askotariko emakume eta gizonei ahotsa emanez beraien ekimen indibidual eta kolektiboen berri emanez. Tokiko euskarazko hedabide baten aldeko apustua egitea transformazio digi-talaren sasoian Anbotok duen beste indarguneetako bat da. Onlineko bertsio dinamikoak ez digu "kendu" mimoz zaindutako paperezko alea, eta hori milagro bat da.

Anbotoko lantaldea, iragar-leak zein kolaboratzaileak animatu nahi ditut astero helburu honekin jarraitzeko, geure izaera harrotasunez aldarrikatuz beharrezko ikuspuntu kritikoagaz. Zorionak!



**ARATZ  
GALLASTEGI SODUPE**

**DRT**

## **Anbotok harreman berezia du DRTgaz**

2008. urteko abuztuan Durango Rugby Taldera heldu nintzen eta orduan eza-gutu nuen Durangoko txoko desberdi-netan Anboto astekaria. Ordutik, eta lehenagotik ere, Anbotok eta Anbotoko pertsonak harreman berezia izan dute Durango Rugby Taldearekin. Beti klubari leku bat eskaintzeko prest, partiduak direla, txapelketak direla, gizarte ekimenak direla, urteurrenak direla eta abar amaiezin bat. Baina gaurko urteurren mezu hau Durango, Durangaldea eta Euskal Herri osoko

euskararen egoeraren inguruko izatea nahi dut. Kezkatuta ikusten dut, urtetik urtera, euskara Durangoko kaleetatik desagertzen ari dela. 2008. urte hartan, Durango nagusiki eremu euskalduna zela sinetsita nengoan, gaur egun zalantzak ditut. Durangaldea eta Euskal Herriaz antzerako iritzia dut. Horrelakoetan gizartearen gain jartzen da desagertzearen ardura, hau da, jendeak erabiltzen ez duelako desagertzeko

**Kezkatuta ikusten dut,  
urtetik urtera, euskara  
Durangoko kaleetatik  
desagertzen ari dela**

bidean dagoenaren ardura. Baina niri beste galdera batzuk datozkit burura; euskara maite dutela adierazten duten instituzio, agintari, politikari eta abar luze desberdinek zergatik ez dituzte euskararen erabilera eta biziraupena bermatuko dituzten lege eta arauak ezartzen? Zergatik ardura nagusia gi-zartearen gain utzi aipatutako hauek guztiak lege, arau eta abarren bitar-tez, eraginkorrakoak izan daitezkeen erremintak dituztenean? Euskararen inguruan marketing eta publizitate kanpaina gehiegi ikusten ditut, eta le-ge, arau gutxiegi.

Norbera bere arduraz jabetu dadila. Aupada handi bat Anboto astekariari eta kalean jarraitzeko lanean dihardu-ten pertsona guztiei.



**MARIA  
GOROSARRI GONZALEZ**

**EHUko irakaslea**

## Hiru ikuspegi

Durangeldean Anbotok daukan lekua-  
ren berri irakurle kopuruak ematen  
du. Nik Anbotori hiru ikuspegitatik  
begiratu diot. Lehenengo, kazetari  
moduan ibili nintzen, proiektua  
martxan ipini eta gutxira. Euskaldunon  
Egunkarian egon nintzen lehenago,  
baina han albiste-agentzien teletipoen  
eta prentsurrekoen agendapean lan  
egin behar izaten genuen. Anboton,  
ordea, albistek geuk sortu behar geni-  
tuen eta, horretarako, herririk herriko  
iturriak bilatu behar izaten genituen.  
Informatzaile anonimo horiei guztiei

ganoraz eskerrak emateko leku egokia  
izan daiteke hau. Eta, goraintziekin  
gaudela, ezin ahaztu orduko lantaldea  
eta elkarrekin emandako ordu luzeetan  
egindako barre-algarak.

Bigarrenik, EHUko ikertzaile mo-  
duan, Anboto aztertzeo aukera eduki  
dut. Asko pozten nau Anbotok berdin-  
tasunarekiko daukan konpromisoak:  
eskualdeko andreak lortu dituzten  
ikusgaitasuna eta babesa azpimarra-  
tzeoak dira; kirolariek, batez ere. Gai-  
nera, informazioa nork zabaldu duen  
zehazten dute Anbotoko albisteen ia

**Eskualdeko andreak  
lortu dituzten  
ikusgaitasuna eta babesa  
azpimarratzekoak dira**

erdiek. Ez da gauza bera esatea herri  
bateko udalak diru-laguntza batzuk  
emango dituela edo udal horrek dei-  
tu duela iragartzeko diru-laguntzak  
emango dituela. Albistearen jatorria  
aipatuta, informazioaren interesa age-  
rian geratzen da.

Azkenik, irakurle moduan ere jarrai-  
tzen dut Anboto, aspaldian ez naizelako  
eskualdean bizi. Berlinen bizi izan nai-  
zenez ere, eskertu dut sarean *anboto.org*  
kontsultatu ahal izana. Are gehiago,  
etxealdiaren sasoian, koronabirusaren  
jarraipenaren berri eduki ahal izana.



**KOLDO  
ZARATE ONAINDIA**

**Euskal Herrian Euskaraz**

## Gure Anboto

Barikuro gogotsu jasotzen dut pos-  
tontzian Anboto maitea, auzokideren  
batek lapurtzen ez badit behintzat  
(kar kar), azken hau harpidedun ez di-  
renek ere interes handia duten sein-  
lea da, baina, mesedez, egin zaitezte  
harpidedun, musu-truk da eta.

Eskualdeko berriak euskara hutsez  
kontaktzen dituen proiektu bakarra du-  
gu, zaindu eta bultzatu beharreko altxo-  
rra. Zenbat sortzaile ezagutu ditudan  
berari esker, zenbat pertsona interes-  
garriren ibilbide eta bizipenak irakurri  
ditudan, zenbat bider pista galduta

nien ezagunen berri izan dudan bere  
orrialdeetan, erreportaje itzelez ere go-  
zatu ahal izan dut...

Eraz-i erreleboa hartuta 20 urtez  
eskualdearen berri emateaz gain,  
euskalgintza eta herri mugimenduen  
aliatu bezala bizi izan dut berarekiko  
harremana. Gaztetatik hainbat isto-  
riotan eta batez ere euskalgintzan  
aritu naizen honek, Anbototarrekin

**Euskalgintza eta herri  
mugimenduen aliatu  
bezala bizi izan dut  
berarekiko harremana**

elkarlanaz eta konplizitateaz goza-  
tzeko aukera izan dut. Euskalgintza  
bilguneetan, bihotzeko Plateruena-  
ren inguruan, jaietan txosnetan eta  
gure karpa kuttunean... ederki pasa  
dugu elkarrekin lan asko egitetik  
aparte.

Hain azkar doan mundu globaliza-  
tu honen aurrean eta aspaldian eus-  
karaz jasotzen dituen erasoaren parean  
euskaltzaleok tinko mantendu beha-  
rra dugu. Asko da aurreratutakoa,  
baina asko dago egiteko. Euskarazko  
komunikabideak kontsumitzea eta  
bultzatzea da euskaltzaleok egin  
dezakegun gutxienekoa. Euskara er-  
digunera! Anboto... urte askotarako!



**MAITE BERRIOZABAL  
BERRIZBEITIA**

**Euskaltzalea**

## Marka

Beltzune bat bekokian eta beste bat  
masail inguruan. Ezezagunen artean  
zabiltzan bitartean inork ez dizu ezer  
esango, baina baten batek begiaren  
ertzetik begiratuko dizu. Ezaguna iza-  
teaz gain, apur bat ezagutzen zaituen  
norbaitekin egingo duzu topo handik  
gutxira eta aurrez aurre begiratuko  
dizu. Begi gaina okertu eta galdetuko  
dizu: - Zertan ibili zara? Aurpegia  
belztuta duzu. Zuk erdi lotsaz eta erdi  
harritura erantzungo diozu: - Nik?  
Aurpegian? Zer daukat, ba? Sakelakoa  
atera eta pareko kamera isiotuko duzu.

Irribarre txiki bat marraztuko zaizu  
aurpegian; badakizu, eskuekin zikin-  
du duzu aurpegia.

Eskuak egunkari papera duen aste-  
kariarekin zikindu dituzula pentsatu  
duzu. Sareetan ere irakurtzen duzu  
haren berririk, baina papera gustuko  
duzu. Ezagun zaizkizu hango berrieta-  
ko pertsonak eta inguruak; hurrekoek  
kontaktutako hurbileko kontuak aurki-  
tzen dituzu bertan. Sakelako pantailari  
atzamar potoloarekin gorantz egin aha-  
la borobil magenta bat agertzen denero  
geldialdixoa egiten duzu. Paperean  
ere geldialdixoak egiten dituzu orriz  
orri, eta ohartu barik eskuak belzten  
zaizkizu.

**Anbotogile eta  
Anbotozale guztiei. Jarrai  
dezagun gure marka gu  
geu izaten**

Eskuetako markei begira ari zarela  
pentsatu duzu aldean daramazula An-  
botok uzten dizun marka. Eskualdeko  
kontuak euskaraz kontaktzen dizkizun  
hori zeurea ere sentitzen duzu. Urte-  
tan, zure begi eta eskuekin 870 ale aletu  
dituzula pentsatu duzu, eta ez da mar-  
ka makala! Zorionak, Anbotogile eta  
Anbotozale guztiei. Jarrai dezagun gure  
marka gu geu izaten.



**MARTXELO  
OTAMENDI EGIGUREN**

**Berriako zuzendaria**

## Beste 20 urte erraz bai!

Atzo ematen du, baina gauza garran-  
tzitsu asko jazo dira 2001ean Anboto  
astekariaren lehen alea kaleratu zenu-  
tenetik: Durangeldean, Euskal Herrian  
eta munduan. Aurreneko esparrukoak  
dira, bistan denez, zuentzat garran-  
tzitsuenak, bokazio horrekin sortu  
zenutelako zuen bailaretan dagoen eta  
komunikabiderik sendoena eta bere  
funtzioa hobekien betetzen duena.  
Meritu hori zuena da, Anboto egiten du-  
zuenona eta gustura irakurtzen duze-  
nona. Anboto bezalako komunikabidea  
daukaten Euskal Herriko beste zonalde

askotan gertatu den legez, milaka herri-  
tar jarri dituzue euskaraz normaltasun  
osoaz irakurtzen, gertuko berriak era  
atseguinean eskaini dizkiezue irakurle  
horiei, eta ondo egindako lan horren  
ondorioz erreferenteak bihurtu zarete.  
Zer gehiago behar du komunikabide  
batek arrakastatsu izateko?

**Kazetaritza ona  
profesionaltasunaren  
eta pasioaren uztardura  
egokiaren ondorioa da**

Askotan esan ohi da euskarazko  
komunikabideen helburu nagusia  
euskararen erabilera zabaltzea dela.  
Ez dut ukatuko. Hala da, ezin bestela  
izan, euskarazkoak direnez gero; baina  
argi eduki ezazue zuen beren-beregiko  
zeregina informatzea dela, zuen har-  
tzaileei informazio landua eskaintzea,  
zuen bailaretan gertatzen denaren  
berri era profesionalean lantzea. Kaze-  
taritza ona, beste lanbide askotan beza-  
la, profesionaltasunaren eta pasioaren  
uztardura egokiaren ondorioa da. Bi  
osagaiak behar ditu, neurri beretsuan,  
ezinbestez. Segi ezazue beste 20 urtez  
orain arte bezain fin.

Zorionak, beraz, duda-mudazko  
garai haietan sortu zenuenoi, eta  
geroztik proiektua gaur egun daukan  
sendotasunera ekarri duzuenoi.



**MIKEL  
LUPIAÑEZ MINTEGI**

**Ostalaria**

**"Zuk plazaratu dituzu eskualdekoon pozak, kezkak, lorpenak, porrotak..."**

Eta konturatu orduko 20 urte bete dituzu, Anboto. Eta nik ez dakit zer datorren lehenengo, eskerrik asko edo zorionak, zorionak edo eskerrik asko. Biak ala biak tamaina edo pisu berdinean joan daitezela. Zuzendaritza, editore, kazetari, maketatzaile, banatzaile, administratzaile... bi

hamarkada hauetan era batera zein bestera lanean ibili zareten belaunaldiei, txalo!

Zaila bezain polita 20 urteotako erronka. Gero eta urrunago iristea helburu duen gizarte honetan, hurbiltasuna ekarri diguzu ostiralero etxera. Jakin izan duzu baita ere, abilezia, era berrietara egokitzen teknologia berrien erabilerarekin. Ikusten edota jakiten ez dena exis-

**Ondo osatutako iragana atzean, koherentziaz egindako bidea, beti eskualdean errotuta**

titu ez balitz bezala da, eta zuk plazaratu dituzu eskualdekoon pozak, kezkak, lorpenak, porrotak... Durangaldearen eta durangarron aldaketaren testigu eta protagonista izan zara. Ondo osatutako iragana atzean, koherentziaz egindako bidea, beti eskualdean errotuta.

Krisi momentuen aurrean erakutsitako mugak gainditzeko gaitasuna eta hobekuntza horretan irmo jarraitzeko agertutako kapazitatea duzu etorkizunera begira bermerik onena.

Anboto, zorionak eta eskerrik asko. Eskerrik asko eta zorionak, anboto!



**ENEKO  
BOVEDA ALTUBE**

**Futbol jokalaria**

**"Badakigu-eta arrain txikiei nola kostatzen zaien handiagoen artean bidea egitea"**

Badira lau urte Durango utzi genuenetik, eta ezin esan dezaket txarto bizi garenik edo itzultzeko irrikitan gaudenik. Lagunak egin ditugu, jendea ezagutu, ohitura berrietara egokitu eta erronka desberdinak aurrera ateratzen saiatzeak ematen duen inda-

rraz gozatu. Internazionalak egin gara eta mundura zabaltzeak aberastu egin gaituelakoan gaude. Ingelesarekin adiskidetu nahian gabiltza, gure garunaren zurruntasunaren aurka.

Baina larunbatetan EtbSat-en bertan pilotariak irrikaz ikusten ditut, edo Bigarren B Mailako futbola. Lagunen wasap taldeak erdi irribarrez irakurri; eta Larnakan, etxetik lau mila kilometrora, Arrasateko familia batekin topo egin eta... a zer gozatua!

Parisekin amesten dugu, New Yorkekin ez bada. Viral abizenarekin datozen albisteez hitz egin. Halloween urtero pixka bat luzeagoa bihurtu zaigu (urriaren hasieran prest geneukan kalabaza gaixoa, pentsa bere patua). Ematen du mundua eta distantziak inoiz baino txikiagoak direla. Euskaldunok, ostera, izaten dugu gauza berrak txikiak gure bihotzaren zati bat gordeta, badakigu-eta arrain txikiei nola kostatzen zaien handiagoen artean bidea egitea. Dela etxe ondoko taberna, dela mendi-txangoa, baserriko tomateak, udazkeneko zaparradak, herriko jaiak... eta euskera. Bide horretan darrai Anbotok, bere txikitasunean tinko eusten eta hurbilekoa urrundu eta gal ez dadin ahalegintzen. Auzokoen berri izatea eta ondokoak ezagutzea ere aberasgarria delako.

Zorionak!



**JUNE  
ARBEO SARRIUGARTE**

**Korrikalaria**

**"Eskerrik asko hemen idazten dugunon hitzak irakurtzeko denbora hartzen duzuen guztioi"**

Akordatzen naiz txiki-txikitatik bari-kuetan etxeko buzoian Anboto aste-karia izan ohi dugula. Orduan, zorion agurrak irakurtzea gustatzen zitzaiz-

dan. Geroago, albisteak irakurtzen hasi nintzen, batez ere kiroleko saila. Noiz edo noiz, aldizkarian ezagutzen nuen norbait agertzen zenean sekulako ilusioa egiten zidan. Durangaldeko herritarrontzat inguruan gertatzen denari buruzko informazio iturri garrantzitsu bat izan da beti Anboto.

Baina momentu batean hori baino gehiago bilakatu da niretzat. Ez zen askoz geroago izan lehen aldiz bertan agertu nintzenean, neure burua bertan ikusi nuenean. Horrek bai egin zidala ilusioa. Eta handik gutxira ni neu naiz kolaborazioak idazten dituen. Polita da komunitate baten parte izatea. Dakigunari buruz idaztea edo gure iritzia ematea beti iruditu izan zait interesgarria, baita ez dakigunari buruz irakurri eta gure iritzi propioa sortzea ere. Idazteko eta irakurtzeko sare sozialak gero eta gehiago erabiltzen diren garai honetan, ezinbestekoa ikusten dut komunikabideak sustatzeko beharra. Zein aberatsak izango ginatekeen goizero denok gure inguruan gertatzen denaz irakurriko bagenu. Horregatik, gaur, Anbotoren 20. urtebetze egunean, gogorazi nahi nuke kolaboratzaile, eta batez ere irakurle guztiei esker dela berezia hau.

Beraz, eskerrik asko, noizbehinka bada ere, hemen idazten dugunon hitzak irakurtzeko denbora hartzen duzuen guztioi. Etor daitezela beste 20 urtebetetze.



**GAIZKA OLABARRI  
BENGOETXEA**

**Hitz liburu-denda**

**"Eta sinetsi iezadazue, Anboto astekariko ale harek bizitza aldatu zidan"**

Oraindik gogoan dut nola hartu nuen Durangoko Hitz liburu-dendako ardurara. 2011. urteko udaberria zen, ostirala, eta bikotekidea eta biok amaginarreba- ren etxean geratu ginen bazkaltzen. Ni garai hartan langabezian nengoen. Lan-elkarrizketak egiten banituen ere, inoiz ez nintzen elkarrizketa haietatik pozik

ateratzen, ez nuen enpresa batean lan egin nahi, nire kontura baizik. Izan ere, langabezian nengoen azken lana nik neuk utzi nuelako eta ez lanetik egotzi izanagaitik. Bueno, ba kontatzen ari nintzen bezala, ostirala zen eta Anboto astekariko sukaldeko mahai gainean zegoen, heldu berri. Hartu eta irakurtzen hasi nintzen. Lasai-lasai irakurtzen nengoen orrialdera heldu nintzen arte. Eta sinetsi iezadazue, Anboto astekariko ale harek bizitza aldatu zidan. Azken orrialdeko elkarrizketatua Nekane Bereziartua zen, orduko Hitz liburu-dendako jabea. Hile hartan bertan erretiroa hartuko zuela-eta, elkarrizketa egin zioten Anbotokoek. Senitartekoekin bazkaldu, postrea eta kafea hartu, eta siesta egin beharrean han abiatu nintzen Durangoko Arteka-leko 14. zenbakira. Nekanarekin berba egin nuen eta ea jarraitzailek bazuen galdetu nion. Baten bat bazegoela bai, baina kontu serioerik ez, eta interesik izanez gero niretzako izango zela negozioa. Asteburu hartan bertan erabaki nuen Hitz liburu-dendako ardurara nik neuk hartuko nuela. Kultura zalea izanik, itzelezko ilusioa egiten baitzidan horrek. Gaur egun, bertan segitzen dut lanean lehenengo eguneko ilusio berberaz, eta Nekane egunero-egunero etortzen zait bisita egitera Hitzera, bere etxera.

Honexegaitik eta gehiagogaitik, eskerrik asko, Anboto, eta urte askotarako!



**IBAI  
ZABALA GANDARIAS**

**Irakaslea**

## Mikrotik, baina ekinez

Anbotoren 0 zenbakia "2001eko zemen-diaren 9an" argitaratu zen, ale hartako goiburuan irakur litekeen lez. Azkenak, 869.ak, ordea, "2021eko azaroaren 5a" dakar idatzita toki berean. Alkarrizketea eta eritxia sailek elkarrizketa eta iritzia izenak hartu dituzte; eta jat eta lekiezanak aditzak agertzen ziren tokietan, zait eta ditzaketenak aurkitzen ditugu orain. Horiek guztiek Anbotok gizaratearekin batera aldatzen joan dela erakusten dute; herritik sortu zena, herriak ekoizten jarraitzen duen seinale. Gogoan dut gurean ere egin genuela as-

teroko alea jasotzeko harpidetza. Baserri auzo batean bizitzeak ale ostiralean jaso beharrean, igande edo astelehenetan jasotzea zekarren eta dakar, baina gustura asko irakurri izan dugu beti. Anbotoren ale idatziaren ezaugarri nagusia ez baita sekula izan azken orduko informazioa ematea, irakurleari zerbait desberdina eskaintzea baizik: eskualdeko jendeari egindako elkarrizketak, sakon garatutako berriak, iritzi-artikuluak, eta abar. Gu ta gutarrak musika taldeak honakoa abesten zuten: "zintzoa banaiz nik ez dakit zer eskatzen duen herriak, notiziak ala berriak". Bada, ale idatzian datozkigunak notiziak direla esango nuke.

**Gure ingurukoak, gure hizkuntzan. Eta horixe da euskarak behar duena**

Eskualdean lan bikaina betetzen eta ezinbesteko papera jokatzeko duen hedabidea dugu Anbotok. Gure ingurukoak, gure hizkuntzan. Eta horixe da euskarak behar duena, tokian tokikoa lantzen duen hedabide euskalduna, hurbilekoa zaigun hori gure hizkuntzan ematen diguna. Bide horretatik soilik egingo baitiegu aurre parean dauzkagun makro-hizkuntzei, mikrotik, baina ekinez.



**LEIRE  
HUERTA ORTUOSTE**

**Hontza Museoa**

## "Karrotxoa Anbotoz bete eta banatzera joaten ginen"

Zorionak, Anbotok! 20 urte, erraz esaten da baina atzerantz begiratuta zenbat bizipen, modu batean edo bestean Anbotok nire bizitzaren parte izan baita. Ondo gogoratzen ditut hasierako uneak, garai hartan banatzaile nintzen, ostiraleko karrotxoa hartu eta lehen Erazekin betetzen genuena Anbotok bete eta banatzera joaten ginen, zenbat ordu pasatuko genituen eguzki, euri, hotz eta bero, Durangon bizi zirenei Duran-

galdeko informazioa banatzen. Gogoan dut txirrina jo eta "Anbotok" esaten genuenean jendeak harrera ona ematen zigula, asteburuan zer egin ikusi ahal zuelako edo bere herrian zer berri izan zen irakurri ahal zuelako. Honekin batera Igorrek eta nik San Faustoetan Anbotok txosna ere hainbat urtez antolatu genuen. Lan gogorra izaten zen, aurretik dena lotuta utzi behar genuen eta ondoren jaien eguneroko martxa

**Hontza Museoko zuzendari bezala ere eskerrak eman behar dizkiogu Anbotori, beti hor daudelako**

kontrolatu. Bata zein bestea beharrezko lana, Durangaldearentzat eta euskaldunontzat hain baliotsua den Anbotok bultzada eman eta aurrera egiten laguntzeko. Gazte ginen gazte. Urteak pasatu dira etapa hartatik eta orain gu gara ostiraleko gure etxean Anbotok jasotzen dugunak. Hontza Museoko zuzendari modura ere eskerrak eman behar dizkiogu Anbotori, beti hor daudelako behar ditugunean gure behin-behineko erakusketa, dohaintzak edo bestelako albisteak ditugunean irakurleen eskura jartzen dituelako. Urteak betetzen jarraitzea opa dizuet, euskaldunok kalitateko astekari bat irakurtzeko aukera izaten jarraitzeko eta gure seme-alabak ere irakurle bihurtzeko.



**ERIKA  
LAGOMA POMBAR**

**Irakaslea**

## Etxea aldatu duenak

Etxea aldatu duenak aingura behar du. Maleta eta motxila bete iritsi da. Jertseak, agenda, lentilen likidoa eta galtzerdi solteak. Herriak izena du bere, baina edukiontzia hutsa da, lursail soila etxea aldatu duenarentzat. Kantoiko tabernan kafe huts amerikarra eskatu du eta egunkariaren dorretik Anbotok hartu. Etxea aldatu duenak lurra behar du. Eskukada betean atzamarren artetik ihes egiten dion hondarra usaindu. Ezagutu oinak non jarriko dituen, eta putzuak eta lohiak aukeratu, herririk herri eta tolesduraz tolesdura.

Etxea aldatu duenak herria behar du, saguzarrena ere badena, Kioseko kanpamentuan hamabost egun egin dituen erizainarena, taupada eta memoria diren emakumeena, umeentzako literatura ilustratzen duenarena.

**Etxea aldatu duenak etxea behar du. Konfiantzazko eremua Atea zabalik duena eta leihoetatik herria ageri zaiona**

Etxea aldatu duenak auzoa behar du. Erosketak egin ditu eta amantala jantzi. Barazkiak txikitu bitartean gatzaren potean azken aleak ikusi ditu. Txirrina jo dio bigarren eskumako Juliani, eta katilu bete itzuli da. Baldosetan ura lurrin. Zapatuan ez daki zer egingo duen; mendiko merkatu txikira joango den, gaztañerrera, Sahararako elikagai bilketara arroza eta konpresak eramatera, Sugarri fanfarrea entzuterera, edo *Altsasu* antzezlarina ikustera joango ote den.

Etxea aldatu duenak etxea behar du. Konfiantzazko eremua. Atea zabalik duena eta leihoetatik herria ageri zaiona. Eraikinaren aurrealdeko paretetan herritarren joan-etorriak grafiteatzen dituen. Barruko patioan, iraganeko arrastoan, gaurko berben, etorkizuneko haizeen oihartzuna gordetzen duena.



**MERTXE MUGIKA  
BALANZATEGI**

**AEK**

## Anbotok, zorionak eta urte askotarako!

Bariku iluntzea, etxera heldu eta lehenengo gauza ea buzoian Anbotok aldizkaria dagoen begiratzea izaten da niretzat ohikoena. Hori eginez jakiten dut ea zer gertatu den Durangaldean azken astean, normalean beste hedabide handietan agertzen ez diren berriak bertan irakurtzeko aukera ematen dit Anbotok. Gertutasuna da gehien gustatzen zaidana; Anbotok esker jakin izan dut Urkiolako Bizkarra jatetxeko Elik ondo irabazitako jubilaria hartuko duela, orain

dela hilabete inguru Atxondon izandako Ardi-txakur Txapelketaren egitarauan eskualdeko hiru emakume indartsu omendu zituztela, AHTaren kontrako plataformak zenbait ekimen antolatuta dituela... Adibide batzuk dira, aurreko lerroetan esandakoa ilustratzeko.

**Argi dut Anbotok-ri esker Durangaldeko euskaldunen komunitatea trinkotu eta saretu egin dela**

20 urte atzera eginez, gogoan dut Elorrioko Berriketean euskara taldean Durangaldeko egitasmo berria zeto-rrera-eta egiten genituen batzarrak. Gehien erabiltzen ziren berbak: gertutasuna, tokian tokiko informazioa, eta euskaraz informatuak izateko eskubidea. Urteak pasatu eta gero, nik komunitatea eta saretea gehituko nituzke. Izan ere, argi dut Anbotok-ri esker Durangaldeko euskaldunen komunitatea trinkotu eta saretu egin dela. Are gehiago, esango nuke indartu ere egin dela: asko dira euskaraz irakurtzeko ohitura Anbotok irakurtzen hartu dutenak, edota euskara ozta-ozta jakinda gutxienez begirada botatzen diotenak aldizkariari, ea ezagutzen duten norbait agertzen den!

Ospakizun egunak ditu aldizkariak, ze, duda barik, badago zer ospatu. Zorionak, beraz, Anbotok komunitate guztiari!



**LIBE  
MIMENZA CASTILLO**

**Kazetaria**

## Anboto garelako

Kafe paketeak erraz irekitzeko sistema iritsi zen Euskal Herriko sukaldeetara duela bi hamarkada, goiko ertzean aurkitzen dugun buztan mehe gorri hori, plastikoaren urrezko aroaren beste aurrerapauso bat: "Orain ireki erraz betiko zaporea" letra larriz folio tamainako kontraportadan, Eraz aldizkariaren azken alean, gurasoen etxeko hemeroteca partikularrean.

Durangaldeko euskara hutsezko astekarrian, 2001eko urriaren 19an iragarri zen bazetorrena: —Eta... orain nora goaz? —Nora joango gara, ba, Anbotora!

Zuri kolorekoa zen orduan 1.331 metroko tontorrean dagoen aizkora, morea da 20 urte pasata han goiko postontzia.

Aldaketak iragarri munduratu zen Anboto: egunkari paper eta tamainan argitaratuko zuten astero, eta doan. Bi hamarkada hauetan etorri dira webgunea, Facebook, Twitter, Instagram, Whatsapp, Telegram eta beste. Jaio zen astekari izateko, baina egunero sararitzen da Anboto orain.

Beste era batera esanda: oinez eta motxila beteta igotzen zen Anboto lehen, korrika eta ezer gabe gaur.

Aldaketa da arau.

Hemerotekan aurkitu ditut gure amak gordetako ume garaiko astekari zatiak, etxeko mukizuak dantzariak eta pilotariak gineneoak. Geroagoko kontuak dira tinbrea jo eta "Anbotooo" esanez irekitzen ziren atarteak, aita kotxez lagundutako banaketak euria egiten zuen bariku hotzetan. Banatzaile izatetik kolaboratzaile izatera gero, 10 urte igaro dira zutabeak idazteko proposamen hartatik, eta ordutik hiruzpalau aldiz aldatu dut Anbotoren harpidetza mudantzez mudantza, eta baita urteroko 30 euroko Anboto lagun kuota batzuk ordaindu ere. Kolaboratzaile, harpide eta babesle.

Herri ekimenak sortutakoa herritarrena ere badela (sentitzen dugula)ko.

Noiz hartuko doguz kafea eta pastela ospatzeko?

Zorixonak, Anboto!



**JOSEBA  
SARRIONANDIA  
URIBELARREA**

**Idazlea**

## Aurrekariak

Tavira aldizkaria argitaratu zen 1959 eta 1963 artean. Hura bultzatu zuten gazteek —Santi Duñaiturriak, Eugenio Arietaraunabeñak eta enparauek— *Ezkurdi* izena ipini nahi izan zioten, baina Jose Echeandia Santa Anako parrokoari larriak iruditu zitzaizkion *E-zk-di* letra horiek letra handitan ikusteko, eta nahiago izan zuen *Tavira* izendatu, uverekin. Ez titulua bakarrik, gazteen gogo moderno euskaltzaleak orri parrokiak bihurtu zituen. Durangoko Alpino

Tavira mendizale taldeak *Katazka* aldizkaria argitaratu du luzaroan, 1973tik aurrera behintzat 59 zenbakitik gora gordeko dira. Gerediagi aldizkaria edo boletina ere urtetan argitaratu zen, forma eta mami diferentekin elkartearen egoeraren eta kontestuaren arabera. Leopoldo Zugaza nekaezinak, bere aldetik, hainbat aldizkari editatu zituen gai diferentetako ikerketa bultzatzeko: *Gaiak*, *Hegalez hegal* eta *Ibidem*. Jose Ramon Diez-ek, berriz, historia lokala landu zuen 1981 eta 1983. urteetan: *Cuadernos de Historia Duranguesa*. Halako gai berezikoak izan ziren Durangoko udalak umeentzat ateratzen zuen *Txipristin*, eta Durangoaldeko gazte batzuek literatura umorearekin bat eginda atera zuten *Txistu y Tamboliñ*. Anboto bezala, informazio orokorragoak ziren 1979-1981 bitartean argitaratu zen *Ibaizabal*, hurrengo urteetan udalak babestu zuen *Mikeldi* eta, batez ere, luzaroan iraun zuen *Eraz*.

Seguru izan direla ahaztu zaizkigun aspaldiko ahaleginak, eta ezin da ahaztu gaur egun argitaratzen diren Mugalari, Dot eta Durangon. Aspaldikoa da Durangoaldean komunikazioa bultzatzeko eta komunitatea eraikitzeke ahalegina. Eta ederra da gaur egun, Anboto honetan, aurrekarion asmoak hain ondo aurrera eramanda ikustea.



**OIHANA  
AZKORBEBEITIA URIZAR**

**Mendi korrikalaria**

## Beste 20 urte baietz!

Barikuetako poz handietariko bat da niretzat Anboto. Postontzian ikusita bakarrik irribarre bat ateratzen dit, jakin badakidalako sofán edo mahaira jesarri eta irakurketak plazera sortuko didala zati baterako, eguneroko burrundatetik eta bizimodu bizkor eta estresagarri honetatik unetxo batez behintzat askatuko nauela.

Beste postontzietan ale bana dagoela ikustek ere poza ematen du, nik sentitzen dudán antzeko zirrara sentituko dutelako askok euren alea hartzean. Zelan ez da, ba, zirrargarria

izango, Durangaldean euskara hutsean dugun astekari bakarra izanda! Izena irakurrita bakarrik, Anboto, mendia gogora dakarkidan berripera da, eta ez edozein mendi, gure parajeko mendirik garaiena, mitologikoa, Mariri aterpe ematen diona. Zelan ez zaizkit, ba, interesgarriak egingo Anbotoren altzoan gertatzen diren berriak? Gainera, akuilu ederra da denontzat euskaraz gozamenek irakurtzeko.

Nire kasuan, gainera, kolaboratzeko aukera dut; oker ez banago, zortzi urte pasatxo daramatzat lantzean behin zutabetxoak idazten, eta neure parte ere sentitzen dut Anboto, eta neu ere Anbotoren parte sentitzen naiz neurri handi batean.

Anbotok herririk herri garamatza, auzorik auzo, mendirik mendi eta errekarik erreka. Kirolean murgiltzen eta kirola bizitzen laguntzen digu, kulturaz janzten gaitu, Durangaldeko txokoak erakusten dizkigu eta buruari klik egiten ere laguntzen digu, umeei batez ere. Gure txiki biak behintzat buru-belarri sartzen dira haurrentzat prestatutako labirinto, letra-zopa, esaera zahar, margolan, gurutzegramak eta ingurumarietan.

Baina, batez ere, esango nuke euskal komunitate baten parte sentiarazten nauela/gaituela Anbotok. Beraz, zorionak lantaldeari. Beste 20 urte baietz!



**KRISTINA  
MARDARAS SEDRUN**

**Bertsolaria**

## Zelan pasetan dan denpora!

Zelan pasetan dan denpora!

Eraz aldizkariaren ondoren etorren Anboto astero-astero Durangaldeko barriak emotera. Zorrontzarrak gehitu ziran gerora. Orain 20 urte sorgindu ninduen bere proiektuak eta orain be gustora jarraitzen dot irakurten. Inguru baten partaide sentiarazten nau. Durangaldeko barri etxeraino ekarten deust eta horrek inguru bizi batekin konektatzen eta parte hartzera gonbidatu. Aktibatu egiten nau.

Hango bertso saioaren barri, besteko feria ekologikoak edota hemengo kontzertu, zinema, antzerki edo hitzaldiak non eta noiz diren puntual etxeraino.

Etxe askotan Anboto izango da, hainbatan, euskeraz irakurten dan aldizkari bakarra. Oromiñoko baserri guztietan hartzen da Anboto. Eta galdetuta ea irakurten daberen, zaharrenek erretratuak ikusi eta titular nagusiak behintzat bai. Bista hobeagokoek azpitoluak be bai. Eta albiste interesgarrienak, oso-osorik. Benedita Garatek esaten eustan, Mendiolako kontuak danak irakurten ebazala. Bai ba, bera hangoxea zan eta. Eta Bene, 80 urte ebazala Anbotoren banatzaile ibili zan 15 urte luzean.

Nik Ijorretan hartzen neban Anboto pakete osoa eta Arriandiko eskolaondoko buzoiak bete ondoren Bakixakoak Marisol Erdeillakori izten neutsezan; Beneri Oromiñokoak. Bene, etxerik etxe joaten zan, agur bana eginaz Anboto banatzen. Muniketa, Astei eta Maumerakoak Danielek egiten ebazan. Zuetza eta San Marko aldea nire ardura ziran.

Anbotok, langileoi zerbait ordaintzen euskula eta, urtero bazkari bat egiten gendun Astein. Ze pozik ospatzen genuen!

Eskerrik asko Anboto eta beste 20 urtean



**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)



**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)  
inmoduranguesado@gmail.com



**Fernando Uribe**  
AGENCIA INMOBILIARIA  
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO  
Tel.: 946 816 423 • [www.fernandouribe.es](http://www.fernandouribe.es)



**ALOKAIRUAN, EROSTEKO AUKERAGAZ**  
**BERRIZTATUA:** 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du.  
**Alokairuan: 500 € / 99.000 € C.E.E=E**



**ZALDIBAR**  
114m<sup>2</sup>. Etxebizitza altua. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela eta aire egokitua. 2 kotxerentzako garajea. 42m<sup>2</sup>-ko ganbara, etxebizitzagaz bat egiteko aukeragaz, txokoa egiteko, estudioa...  
**252.000 € C.E.E= F**



**DURANGO**  
Berriztatua. Eguzkitsua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela.  
**130.000 € C.E.E= G**



**FAMILIA BAKARREKOA**  
558 M<sup>2</sup>-KO LURSAILA. 305 m<sup>2</sup> 3 solairutan banatuta. Lorategia. 4 logela eta 3 komun. Terraza. Txokoa. Trastelekua. 4 kotxerentzako garajea.  
**525.000 € C.E.E= E**



**DURANGO**  
Etxebizitza altua. Etxe osoak kanpora ematen du. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Aparkaleku pribatua.  
**85.000 € C.E.E= G**



**IURRETA**  
3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. Bizitzera sartzeko moduan.  
**140.000 € C.E.E= F** Negoziagarria

**// ETXEBIZITZAK SALGAI**  
**DURANGO:** Pablo Pedro Astarloa. Pisu berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea jantokiagaz eta egongela.  
**DURANGO:** Antso Estegiz. 3 logela, 2 komun, sukalde-jangela eta egongela. Ganbara.  
**DURANGO:** Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.  
**MAÑARIA**  
**KIRIKIÑO KALEA:** 3 logela, komuna eta sukaldea. Balkoia. Igogailua. Argitsua.  
**ABADIÑO**  
**ETXEAZPIA KALEA:** Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.  
**BERRIZ**  
**ELIZONDO ETXETALDEA:** Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.  
**BERRIZ:** 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.  
**ATXONDO:** 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

**//LURSAILAK SALGAI**  
**GAZTELUA:** 10.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.  
**IURRETA:** 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.  
**//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI**  
**BERRIZ:** Eitua auzoan. Baseri ederra. Berriztatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.  
**ATXONDO:** AXPE. Baseri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria.  
**ATXONDO:** ARRAZOLA. Izugarritzko baserria salgai. 40.000 m<sup>2</sup>-ko lur saila. Berriztatzeko.  
**MAÑARIA:** 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m<sup>2</sup> solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.  
**MAÑARIA:** Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.  
**MENDATA:** Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.  
**DURANGO:** Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatuzeko.

**//BULEGOAK ALOKAIUAN**  
**ABADIÑO**  
30 m<sup>2</sup>-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.  
**//GARAJE ITXIAK SALGAI**  
Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.  
**//LOKALAK ALOKAIUAN**  
Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.  
**//LOKAL INDUSTRIALA ALOKAIUAN**  
**BERRIZ:** Eitua industrialdea. 800 m<sup>2</sup>-ko pabilioia. Aldagelak, komuna eta ofizinekin.  
**MATIENA:** 460 m<sup>2</sup>-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

**www.inmoduranguesado.com**  
**BERRIZ**  
98 m<sup>2</sup>  
**ITURRIZA:** Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta jantzeko gela. Balkoia eta terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua (Ekialde/mendebalde) Berriztatua. Igogailua egiten ari dira (ordainduta geratzen da) Leku onean kokatua, tren geltokitik gertu. Bizitzera sartzeko moduan.  
**240.000 € C.E.E: G** negoziagarria



**MATIENA**  
65 m<sup>2</sup>  
3 logela  
**TRAÑABARREN:** Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (Mendebalde). ALTUA. ARGITSUA. LEKU ONEAN KOKATUA. 8 m<sup>2</sup>-ko ganbara. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan.  
**175.000 € C.E.E: E** negoziagarria



**DURANGO**  
3 logela  
75 m<sup>2</sup>  
**KALEBARRIA:** Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Lehenengo solairua igogailu barik. Etxe erdiak kanpora ematen du (ekialde) Erdialdean kokatua. Erdi berriztuta. Ganbara. ITE-a eguneratua.  
**137.000 € C.E.E: E**



**DURANGO**  
60 m<sup>2</sup>  
**LAUBIDETA:** (2004. urtean eraikia). Halla, egongela, sukalde jantzia, jangela, 2 logela ta komuna. 70 m<sup>2</sup>-ko terraza. Etxe osoak kanpora ematen du (iparralde). Leku onean kokatua. Garaje itxia, sarbide zuzenagaz. BIZITZERA SARTZEKO MODUAN.  
**255.000 € C.E.E: Bidean**



**ZALDIBAR**  
84 m<sup>2</sup>  
2 logela  
**EUSKAL HERRIA:** 10 urteko antzinatasuna. Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, eskegitokia eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua (Ipar-mendebalde). Leku onean kokatua. EZIN HOBEA: 18m<sup>2</sup>-ko garaje itxia.  
**210.000€ C.E.E: E**



**DURANGO**  
52 m<sup>2</sup>  
**ANTSO ESTEGIZ:** 52 m<sup>2</sup>. Egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Balkoia. Pisu altua. Etxe erdiak kanpora ematen du. Herrigunetik oso gertu. Instalazio elektrikoa eta iturgintzakoa berri-berriak. ITE oraintsu pasatutakoa. Igogailua.  
**155.000 € C.E.E: E**

**//DURANGO**  
**ANTSO ESTEGIZ:** 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**  
**ASKATASUN ETORBIDEA:** 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z.=E**  
**BARRENKALEA:** Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**  
**EZKURDI PLAZA:** 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Igogailua. **LEHEN 321.500 € / ORAIN 288.000 € / E.E.Z=F**  
**GOIENKALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **135.000 € / E.E.Z=E**  
**GOIENKALEA:** 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 155.000 € / ORAIN 149.000 € E.E.Z=G**  
**KOMENTU KALEA:** 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **120.000 € / E.E.Z=E**  
**KOMENTU KALEA:** 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Ganbara eta garaje itxia. **230.000 € / E.E.Z=E**  
**SAN AGUSTINALDE:** 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. **200.000 € / E.E.Z=F**  
**SAN FRANZISKO:** 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**  
**SANTIKURUTZ KALEA:** Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m<sup>2</sup>-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**  
**ATXONDO**  
**ARRAZOLA ERREPIDEA:** 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **170.000 € / E.E.Z= BIDEAN.**  
**BERRIZ**  
**BERRIZBEITIA KALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**  
**BIDEGAIN KALEA:** 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara eta garajea. **210.000 € / E.E.Z=E**  
**MURGOITIO AUZO:** Berreraikitze biserria lurzorugaz. **290.000 €**  
**IURRETA**  
**OROZKETA AUZO:** 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**  
**IZURTZA**  
**ELIZALDE AUZO:** 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**  
**MATIENA**  
**TRAÑABARREN:** 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. Ganbara. **175.000 € / E.E.Z=E**  
**OTXANDIO**  
**ARTEKALEA KALEA:** 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **60.000 € / E.E.Z=G**  
**ALOKAGAI**  
Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.  
**GARAJEAK SALGAI**  
Durangon eta Iurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuagaz.  
**BERRIAK - DURANGO**  
**JUAN DE ITZIAR:** 4 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Garaje itxia aukeran. **90.000 € / E.E.Z=EE**

Eskelak jartzeko: 946 816 558  
edo anboto@anboto.org

**Eskela mota guztiak**

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

**Botikak**

**BARIKUA, 12 · 09:00-09:00**

**UNAMUNZAGA** Muruetatorre  
2C - **DURANGO**

**RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE**  
ZAHAR 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San  
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**ZAPATUA, 13 · 09:00-09:00**

**CAMPILLO** Montevideo  
etorb. 24 - **DURANGO**

**RUIZ, JUAN** El Alto-Bide  
Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

**UNAMUNZAGA** Muruetatorre  
2C - **DURANGO**

**NAVARRO** Artekalea 6 - **DURANGO**

**BAZAN DIAZ** Uribarri 5 - **DURANGO**

**SARRIA** Sasikoa 17, **DURANGO**

**DE DIEGO** Intxaurrenondo  
22. - **DURANGO**

**GAZTELUMENDI J.A.**  
Abasolo 2 - **DURANGO**

**FARMAZIA MATIENA**  
Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

**JAIO-ABENDIBAR**  
Errekakale 6. - **ELORRIO**

**GOIRIA, MARI CARMEN**  
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San  
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**MELERO, ROSA MARI**  
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

**GUTIERREZ, IBAN** Txiki  
Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

**IRIGOIEN** Bixente Kapanaga  
3 - **IURRETA**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**DOMEKA, 14 · 09:00-09:00**

**NAVARRO** Artekalea 6 - **DURANGO**

**RUIZ, JUAN** El Alto-Bide  
Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**ASTELEHENA, 15**  
- 09:00-09:00

**ETXEBARRIA**  
Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

**GOIRIA, MARI CARMEN**  
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San  
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**MARTITZENA, 16**  
- 09:00-09:00

**BAZAN DIAZ** Uribarri 5 - **DURANGO**

**GOIRIA, MARI CARMEN**  
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San  
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**EGUAZTENA, 17 09:00-09:00**

**DE DIEGO** Intxaurrenondo  
22. - **DURANGO**

**GOIRIA, MARI CARMEN**  
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San  
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**EGUENA, 18 · 09:00-09:00**

**SAGASTIZABAL**  
Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

**Zorion Agurrak**

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AKARTEKO EPEA



**GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA**

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
gozatudurango@gmail.com  
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Mendi (869. alea)**!  
Hamabostean behin zotz egiten dugun  
tarta zuei egokitu zaizue. Oparia  
eskuratze txartela gura duzuenean  
jaso dezakezue lurretako gure  
egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



Zorionak, **Magali!** Zelako ondo  
ospatu genuen asteartean txokolate  
beroarekin... Etxekuen partez muxu  
potolo bat!



Gure etxeko mutilak 4 urte egin ditu  
azaroaren 10ean. Zorionak, **Aner!**  
Jarraitu orain arte bezala! Mosu handi  
bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **Pirru!** Urte askotan  
jarraitu daizun gure bizitzak hankaz  
gora jartzen. Mosu handi bat etxeko  
danen partez! Askok maite zaitugu!



Zorionak Zaldibarko senide  
guztien partez. Mila musu potolo.



Zorionak gure etxeko futbolista-  
ri. Beti bezain alai segitu ezazu.  
Etxekoen partez muxu pila! Maite  
zaitugu!



ZORIONAK! **Izei Aldekoa-Otalora**  
**Salterain.** Orain zazpi, konturatzera-  
ko hamazazpi. leup!



Zorionak, **Jurgi!** Azaroaren 3an zure  
urtebetetze eguna izan zen. 6 urte!  
Musu handi bat etxeko txikiari aitaren,  
amaren eta lararen partez!



Zorionak, **Iraia,** zure bigarren  
urtebetetzean! Oso ondo pasa zure  
egunean. Muxu handi bat aitaren eta  
amaren partez. Askok maite zaitugu,  
bihotza!

**Eguraldia**

ZAPATUA ↓ 14° / 9° ☁

ASTELEHENA ↓ 12° / 8° ☁

EGUAZTENA ↓ 12° / 7° ☁

DOMEKA ↓ 12° / 8° ☁

MARTITZENA ↓ 12° / 7° ☁


EGUENA ↓ 12° / 7° ☁

**hitz**

artekalea 23, durango  
946 810 776  
liburudenda info@hitzliburudenda.com

**Garden**

Eleberriaren aurkezpena  
*Manu Ertzilla idazlearekin*



Azaroak 10, eguaztena 19:00-etan. Hitz liburu-dendan.





Eskerririk  
asko!



Lekuan  
lekuko

20

anboto

urte